

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAIK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA

Hasierako onarpena: Ohiko osoko bilkura 2020ko urriaren 28an

BAOn argitaratuko da: 214 zk, 2020ko azaroaren 6a

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/11/06/II-3529_eus.

Jendaurrean egoteko epearen amaiera: 20.12.21.

HITZAURREA

Azken urteotan, hirietako espazio publikoetan jartzen diren terrazen eta mahaitxoaren fenomenoak garapen handia izan du eta herritarrek gehien eskatzen dituzten aisialdi-ekintzetako bat da.


Durangon ere bizi dugu errealitate hori eta, beraz, hainbat instalazioen titularrek proposatutako ekimenak ikusita, Durangoko Udalak erabaki du komenigarria dela orain dugun ordenantza (2005-03-22an argitaratua) berrikustea, araudi-testuinguru zabalago bat garatzeko, garapenerako oraingoak baino aukera eta modalitate gehiago eskainiko dituen, baina irisgarritasun-arauak betetzeak dakartzan mugak ahaztu gabe eta durangarrek atsedenerako duten eskubidea zaindu egin behar dutela jabetuta.

Ordenantzak indarrean dagoenetik tresna berritzailea izan da bide publikoa okupatzeko irizpideak ezartzeko, eta arauok aplikatzeak onura ugari ekarri ditu. Besteak beste, honako hauek:

- Hiri-kalitatea hobetu da. Klean elementu berriak egotea ahalbidetu da, eta, horrela, herrian espazio anitzagoak eta bizi gehiagodunak sortu dira. Zerbitzu sektoreak dinamismo ekonomiko handiagoa hartu du, eta Durango herritarrentzako atsegina, praktikoagoa eta erosoagoa bihurtu da.
- Ordenantza martxan jarrita, ondo legeztatuta ez zeuden ostalaritza lokalen lizentziak eguneratu dira. Izan ere, terraza jarri ahal izateko beharrezkoa da indarrean izatea irekiera lizentzia edo jardunean hasi aurreko aurrekomunikazioa.

Ordenantzak hainbat berrikuntza ekarri ditu. Hona hemen aipagarrienak:

- Hiriko espazio mota bakoitzerako terrazak jartzea arautzeko irizpideak ezarri ditu; baita hirigune historikoko oinezkoentzako kaleetarako ere.
- Lurrera jositako estalpe egonkorak jartzeko aukera eman du eta azken urteetan erabiltzen hasi diren altzari-elementu berrientzako (upelak, mahai altuak...) ordenazio-irizpideak ere ezarri ditu.



- Lorategi-guneak interesdunaren kontura aldatzeko aukera eman du, horrela, behar bezala zolatuta ez zeudelako erabiltzen uzten ez zen toki libreetan terrazak jarri ahal izateko.
- Aparkalekuetan aldi baterako terrazak eta mahaitxoak jartzeko aukera zabaldu du hirigintzako eta mugikortasunerako baldintzek eta interes orokorrak horretarako aukera ematen badute behintzat.
- Espazio publikoan berogailua jartzeko legezko sistema bat aurreikusi du. Debekatu egin da berotzeko energia fosilak erabiltzea.

Ordenantza martxan izan den denbora-tarte honetan hobetu beharreko hainbat kontu antzeman dituzte herritarrek, ostalariak eta udaleko bulego teknikoak. Ildo horretan, ordenantza aplikatzerakoan sortu diren arazo batzuk araudia interpretatuta konpondu dira. Beste arazo batzuk konpondu ahal izateko, ostera, ordenantzako edukietan berariazko aldaketak egin behar dira terrazen instalazioa malgutzeko. Irizpide berriak Hirigintza, Herri-lan eta Etxebizitza batzordean eztabaidatu dira eta bertan eman zaie irizpena.

Gauzak horrela, helburu hauek lortzeko egingo dira aldaketak ordenantzan:


- Aurretik baimena izan duten terrazei urtero baimen hori berritzeko tramite administratiboa sinplifikatzea. Horrela, titularra ez da adi ibili beharko terraza eta mahaitxoak jartzeko ezinbesteko duen baimen hori urtero eta betiko formularekin eskatzeko.
- Termino batzuk argitzea, ordenantzaren irakurketa errazteko eta aplikazio-aldian antzeman diren hutsuneak zuzentzeko.
- Hartu diren irizpideei eta Hirigintza batzordean ontzat hartutakoei estaldura eta batasuna ematea.
- Berokuntza-gailuen barnean erradiazio-gailuak sartzea. Espazioaren tenperatura handitzen ez dutenez, ez dute izango energia berriztagarriak erabiltzeko derrigortasunik.

I. KAPITULUA: HELBURUA, DEFINIZIOA ETA EREMUA

1. artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua bide publikoan edo erabilera publikoko espazio pribatuetan ostalaritzako terrazak eta mahaitxoak eta horien instalazio osagarriak jartzearen araubide juridikoa eta teknikoa ezartzea da. Ondorengo lege eta agindu hauek betez ezarri nahi da araubidea: Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea; Ikuskizun publikoei eta aisialdiko jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legea eta horren garapenerako araudia; Espazio publiko urbanizatu eta eraikinetara iristeko eta horiek erabiltzeko ezgaitasunak dituzten pertsonentzako irisgarritasunerako eta pertsona horiek ez baztertzeko oinarritzko baldintzak onartzen dituen 2007ko apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretua; espazio publiko eta urbanizatuaren irisgarritasuna eta bazterkeriarik eza eta erabilerarako oinarritzko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duen 2010eko otsailaren 1eko VIV/561/2010 Agindua; Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 1997ko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta hiri-ingurunean irisgarritasuneko arau teknikoa onartzen dituen 2000ko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskina.

2. artikulua. Izaera juridikoa



1. Bide publikoaren okupazioek erabilera komun bereziaren kategoria dute eta eman egiten dira jabetza-eskubidea zainduz eta hirugarrenei kalterik egin gabe. Eskubidea gauzatzeko, udalaren baimena behar da eta baimenak ordenantza honetan ezarritakoa betez emango dira.
2. Prekarioan emandakotzat hartuko dira eta interes publiko arrazoiengatik ezeztatu egin ahal izango dira kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
3. Baimenak, gainera, izaera juridikoa dutenez, aldi baterako eten ahal izango dira udalak sustatu edo baimendutako jai-giroko jarduerak, kulturakoak, herritarrenak edo kirol arlokoak egiten direnean, jarduera horiek baimendutako espazioari eragiten badiote. Baimenak eten egin ahal izango dira obra publikoak edo enpresa zerbitzu-hornitzaileek edo partikularrek obra pribatuak egin eta baimena indarrean den bitartean nahitaez espazio publiko hori erabili behar badute.

Etenaldi horrek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea emango du espazio publikoa erabili ezin den aldia bi (2) aste baino luzeagoa bada. Kalte-ordain gisa, dagokion tasaren zati proportzionala itzuliko da.

3. artikulua. Eremua

1. Ordenantza hau erabilera publikoko espazio ireki guztiei aplika dakieke, bai titular publikoa dutenei, bai pribatua dutenei. Erabilera publikokoa izate hori egoeraren arabera eta indarrean den plangintzako xedapenak aplikatzearen arabera izango da.
2. Erabilera publikoko espazioak okupatzeko moduak sistematizatzeko, hiriko espazioak ondorengo kategoria hauetan sailkatzen dira:
 - Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloiak
 - Oinezkoentzako kaleak
 - Oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak
 - Espazio libreak eta enparantzak
 - Balio bereziko espazioak
 - Arkupeak

I. eranskinean, espazioak kategoriaren eta izaeraren arabera zehazten dituen plano bat dago.

4. artikulua. Kanpo gelditzen direnak


Araudi hau ez zaie aplikatuko egutegian jarrita dauden noizean behingo ospakizunen eta herriko jai-ekitaldien harira egindako jarduerai.

5. artikulua. Baldintzak

Ostalaritzako lokal bat irekitzeko lizentziaren titular direnek edo ostalaritzako jarduera bat abian jartzeko jakinarazpena egin dutenek bakarrik jarri ahal izango dituzten terrazak edo mahaitxoak.

6. artikulua. Definizioak

6.1. Ostalaritzako jarduerak



Ikuskizun publikoen eta aisialdirako jardueren -edo aldaeren- ordutegiei buruzko 1997ko abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 2. artikuluan jasotako ostalaritzako eta ikuskizun publikoen lokalen artean dauden establezimendu publikoak edo pribatuak dira, jarduera horiek direnean establezimenduko jarduera nagusi. Ordenantza honen ondorioetarako, ostalaritzako jardueren kontzeptutik kanpo gelditzen dira dantzalekuak eta diskotekak. Kanpoan geratzen dira, baita, ostalaritza jarduerak egiten badituzte ere, ostalaritza-lokalen arteko gutxieneko distantziak aplikatu ez zaizkien lokalak.

6.2. Altzariak

Terraza edo ostalaritzako mahaitxoa: Espazio publikoetan edo sarrera libreko eta erabilera publikoko espazio pribatuetan ostalaritzako legezko establezimendu baten aldi baterako edo etengabeko osagarri gisa balio duten mahai, mahai altu, aulki, taburete, upel edo eserlekuen eta horien instalazio osagarrien multzoa da. Finkoak edo mugikorak izan daitezke; hala nola itzalkinak, eguzki-oihalak, estalki finkoak, alboetako babesgarriak, argiak, berotasuna emateko gailuak eta abar. Establezimendu handiago baten parte direnean ere bai, establezimendu horren lizentziak ostalaritza-osagarriaren funtzionamendua baimentzeko modua eskaintzen duenean.

Mahaia: Hanka batek edo gehiagok eutsitako 80 cm-tik behera dagoen azalera lau bat.

Mahai altua: azalera lau 100 cm-ko altueratik gora duen mahaia.

Upela: upel baten diseinua eta euskarria dituen mahai altua. Oinarria 100 cm-ko diametrokoa izango da gehienez.

Aulkia: bizkardun aulkia, gehienetan lau hankakoa eta pertsona bakarrarentzako tokia duena.


Taburetea: besodun eserlekua, bizkarrik gabea eta pertsona bakarrarentzako tokia duena.

Eserlekua: bizkardun edo bizkarrik gabeko eserlekua, hainbat pertsonarentzako tokia duena.

Elementu eta instalazio osagarriak: Mahaiak, mahai altuak, aulkiak, tabureteak, upelak edo eserlekuak izan gabe ostalaritzako terrazak edo mahaitxoek behar bezala funtzionatzeko erabiltzen diren elementu osagarriak. Honako hauek dira elementuak: eguzkitakoak, eguzkitako handiak, eguzki-oihalak, eta egitura egonkorra duten estalkiak. Instalazioak, berriz, bestelakoak dira: argiteria, berokuntza dotazioak, erradiazio-dotazioak, eta hozte-sistemak, aspertsio edo lurrun bidezkoak.

Eguzkitakoa: Aterki formako instalazio osagarria, bere buruari eusten diona. Euskarri baten gainean jarritako oihal batek eta hagatxo osatutako egitura batek osatzen dute. Lurrera josi gabe jartzen dira eta eguzkitatik babesten dute. Eguzkitakoek, irekita, 3,00 metroko altuera izango dute gehienera eta gutxienez, 2,20 metrokoa hagatxoetaraino eta oihala 20 cm izango dute zintzilik. Eguzkitako bakoitzak gehienez hartuko duen tokia 3 metroko diametrodun zirkulu bat izango da. Eguzkitakoak terrazaren mugatik gehienez 50 cm aterako dira eta ez dira aterako espaloi ertzek markatzen dituzten mugetatik.

Eguzkitako handiak: Eguzkitako formako instalazio osagarria, baina tamaina handiagokoa eta lurrean ainguratu daitekeena. Egunero kentzen den elementua da, eta, beraz, ez da egitura egonkorra duen estalkia.



Eguzki-oihala: oihal edo olanazko estalkia. Itzal egiteko zabaltzen da eta zabaldu eta biltzeko sistema bat du. Eguzki-oihalen neurriak eta ezaugarriak eraikinetatik irtenak gelditzen diren elementuentzako araudian adierazitakoak izango dira.

Egitura finko bidezko estalkia: terrazan gainetan jartzen diren babesteko elementuak dira. Olanek edo material zeharrargiek osatzen dituzte eta ez zaizkie ezaugarriak aldatzen denbora igaro ahala. Egitura independentea eta autosostengatzailea dute eta lurrera josiak egon daitezke ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera.

Estalki finkoetarako hiru egitura mota identifikatu dira:

- a) Ate motakoak.** Atari bakarreko egitura bat da. Egitura horretatik zintzilik jartzen da eguzki-oihal bat bi aldetan, dagokion espazioa estaltzeko.
- b) Markesina motakoak.** Alderantziz jarritako L baten formako egitura; hainbat atarik osatzen dute. Eguzki-oihal bat edo material zeharrargitsua jartzen da gainean. Luzera-alde bat goitik behera itxita izan dezakete, material gardenez.
- c) Sare formakoak.** Sare formako egitura bat da, normalean laukizuzena, zutikoek eta bigek osatutakoa. Horiek isurki bat edo gehiagoko estalki inklinatu bati eusten diote, gainean olana edo material zeharrargia duenari, hain zuzen.


Terrazako argiztapena: Ostalaritzako establezimenduko instalazio elektrikora lotutako instalazio elektriko batek eta terrazaren instalazioan bertan jarritako argiek osatzen dute instalazio osagarri hau. Terrazako altzarietan edo instalazio osagarrietan eutsita jarri beharko dira argiak eta mahaietara bideratuta egongo dira, terrazaren kanpoaldera argi-kutsadurarik sortu gabe. Terrazako argiek ostalaritzako establezimenduko instalazio elektrikora duten lotura lurzoru publikoaren azpitik egin beharko da eta titularrak bere gain hartuko du kostua, argiztapena lokalaren fatxadatik zuzenean hartu ezin denean.

Berotasuna emateko gailuak: Terrazaren instalazio osagarria. Terrazaren eremua bakarrik berotzeko balio du eta energia-iturriek berriztagarriak izan behar dute.

Erradiazio-gailuak: Terrazako instalazio osagarri hauek erradiazioaren bidez berotzen dituzte gorputzak. Ez dute konbekziorik eragiten eta ez dute giroa berotzen, beraz, ez da beharrezkoa haien energia-iturria berriztagarria izatea.

Aspertsio edo lurrun bidezko hozte-gailuak: Terrazako instalazio osagarri hauek ura botatzen dute, aspertsio bidez edo lurrunduta, eta ez dute behar energia gehigaririk. Giroa hozten dute ura lurruntzerakoan sortzen den erreakzio edotermikoarekin. Instalazio hau lokal barneko ur-sarera konektatu beharko da, eta lotura hori begibistan ez dauden bideen bidez egin beharko da; lur azpitik edo eraikinean integratuta.

Alboetako eta perimetroko babesak: esparru bat mugatzeko edo zedarritzeko balio duten elementu egonkorak dira. Lurrera josiak edo mugikorak izan daitezke, gardenak edo opakoak eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Babes horiek terrazaren azaleraren alde bat edo gehiago mugatzeko erabil daitezke, dagokion baimenaren arabera. Alderdi baterako edo elkarren alboan ez dauden bi alderditarako bakarrik balio dutenean, alboetako babesak esaten zaie eta elkarren ondoko bi alde edo gehiagotarako direnean, perimetroko babesak.



Hiriko eremu homogeenak: izaera bereko espazio jarraiak. Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietan bideko bidegurutzeen arteko kale zatiak osatzen du; oinezkoentzako kaleetan kale osoak osatzen du; arkupeetan, espazio libreetan eta plazetan zein balio bereziko espazioetan **I. eranskineko** planoan mugatutako eremu bakoitzak osatzen du.

6.3. Espazioen ezaugarriak

Ibilgailuen zirkulazioa duten kaleetako espaloiak: Ibilgailudun bideen alboetako espaloiak dira. Zintarri bidez egoten dira ibilgailuen bidetik bereizita, zabalera edozein dela ere. Normalean, eraikin baten fatxada izaten dute mugakide.

Oinezkoentzako kaleak: Oinezkoentzako kaleak dira mantentze-lanetarako edo larrialdietarako izan ezik ibilgailuentzako beti itxita egoten diren kaleak.

Oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleak: Ordutegi aldetik edo aldi baterako ibilgailuentzako zati batean edo erabat itxita dauden kaleak. Ordu tarte batzuetan oinezkoek eta ibilgailuek partekatu egiten dituzte kale hauek.

Espazio libreak eta plazak: Oinezkoentzako espazioak edo espazio libreak dira, duten konfigurazioagatik ez oinezkoentzako kale, ez partekatutako kale ez direnak. Normalean, lorategi-guneak dituzten zolatutako eremuak izaten dira.

Balio bereziko espazioak: Estetikaren, paisaiaren edo arkitekturaren aldetik ingurumen-balio berezia duten espazio libreak eta plazak dira.

Arkupeak: Eraikin edo etxadi batzuek fatxadetan eta ateen eta denden aurrean dituzten beheko solairuetan dauden erabilera publikoko espazioak dira, klaustro formakoak. 3,50 metro baino gehiago dituzte sakoneran.


6.4. Irisgarritasuna

Oinezkoentzako ibilbidea: Batez ere oinezkoak ibiltzeko espazio publikoak, denek erabili ahal izatea bermatzen dute, bereizkeriarik gabe. Oinezkoentzako ibilbideek lurzoruari zein altuerari dagokionez pertsonen pasatzeko, gurutzatzeko, biratzeko edo norabidea aldatzeko aukera bermatzen diete, edozein direla ere pertsona horien ezaugarriak edo batetik bestera joateko moduak. Gorpildun aulkian ibiltzen direnei eta itsuei ere bertatik igarotzeko aukera ematen diete. Ibilbide hauek ezin dute zabalean bi metro baino gutxiago izan.

Oinezkoen pasabideak: Oinezkoak ibiltzeko espazio publikoak dira. Lurrari dagokionez, ez ditu bermatzen oinezkoentzako ibilbideen baldintzak, baina bai altuerari dagokionez, eta pertsona itsuak ibiltzeko egokiak dira. Pasabide hauek ezin dute zabalean metro bat baino gutxiago izan.

7. artikulua. Muga orokorrak


1. Eskumena duen udal autoritateak ostalaritzako terrazak edo mahaitxoak jartzea debekatu ahal izango du interes publikoak hala eskatzen duenean, bideagatik, egoeragatik, bideko segurtasunagatik, obra publikoengatik edo beste edozein egoeragatik.
2. Ezingo dira terrazak eta mahaitxoak larrialdietako irteeretan traba egiten duten lekuetan jarri, ezta pasabideei, oinezkoentzako pasabideei edo garraio publikoko geltokiei traba egiten dieten lekuetan ere.



3. Zirkulazio-bideen ondoan jartzen badira, aparkatzeko marrarik gabe, bidea babesteko zerbait jarri beharko da.
4. Debekatuta dago terrazetan ondorengo elementu hauek instalatzea:
 - a) Ur-horniketarako eta/edo saneamendurako hartuneak, terraza garbitzeko edo terrazan erabiltzeko. Gainera, aspertsio edo lurrun bidezko hozte-gailuetarako ere erabili daitezke.
 - b) Edozein motatako produktuak saltzen dituzten makinak eta edariak eta/edo janariak prestatzeko instalazio osagarriak.
 - c) Soinua duten erreproduzitzeko gailuak; hala nola musika-ekipoak, bozgorailuak, telebistak edo bestelako gailuak (ekipamendu informatikoak, karaokeak eta abar). Hala ere, udalak baimen bereziak eman ahal izango ditu noizean behingo ospakizunak antolatzeko.
5. Terrazetan eta mahaitxoetan ere debekatuta dago ostalaritzak bere ez dituen jarduerak egitea; hau da, edariak eta janariak zerbitzatu besterik ezin da egin. Hala ere, udalak baimen bereziak eman ahal izango ditu noizean behingo ospakizunak antolatzeko.
6. Ordenantza honetan adierazitako baldintzez gain, altzariek eta instalazio osagarriek Udal plangintzan ezarritako hirigintzako baldintzak bete behar dituzte.
7. Ordenantza honetan okupaziorako adierazitako baldintzez gain, terrazen eta mahaitxoaren instalazioetan irisgarritasunari buruzko araudian ezarritako hiri-inguruneetako irisgarritasunerako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.
8. Ordenantza honetan espazio mota bakoitzerako ezarritako muga jakinak errespetatuz, terrazek eta mahaitxoek, gehienez, 12,00 x 4,80 metroko azalera hartu ahal izango dute terraza jartzeko emandako lizentzia bakoitzeko. Espazio libreetan eta plazetan (balio berezia dutenetan baita) azalera % 50 handitu daiteke, gehienez 12,00 x 7,20 metrora iritsi arte, baldin eta baimen hori emateak espazio horretako beste ohiko erabilera batzuk mugatzen ez baditu behintzat.
9. Gehienezko muga hortaz gain, jarri nahi den instalazioa jarduera nagusia hartzen duen establezimenduaren fatxadaren luzeratik irteten bada, urtero egiaztatu behar izango da beste lokaletako titularrak horrekin ados daudela, ondorengo kasu hauetan:
 - a) Horrelako instalazioak jartzeko egokiak diren ostalaritzako establezimenduak direnean edo
 - b) Eragina jasango duen establezimenduaren fatxadaren lerrotik lau (4) metro baino gutxiagora daudenean.

II. KAPITULUA: INSTALAZIOAREN BALDINTZAK

8. artikulua. Instalazioaren baldintza eta muga orokorrak




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Ordenantza honetan deskribatutako ezaugarriak dituzten mahaiak, mahai altuak, upelak, aulkiak, tabureteak, eserlekuak, eguzkitakoak, eguzki-oihalak, estalki finkoak, alboetako eta perimetroko estalkiak, eta definitutako instalazio osagarriak bakarrik instalatu ahal izango dira.
2. Ostalaritzako lokal bakoitzak baimen bakarra eskuratu ahal izango du. Terrazak espazio jarrai bakarrean jarri beharko dira, baina espazio horren funtzionamendu-arrazoiak direla medio, terraza edo mahaitxoaren instalazioaren barruan pasabideak edo oinezkoentzako bideak jartzea eskatu ahal izango da. Ibilgailuen zirkulazioa duten espaloien kasuan, terrazaren luzera oinezkoentzako pasabideetan trabarik ez egiteko beharrezkoak diren espazioak kenduz neurtuko da; elkarren segidako bi kaletan instalatu ahal izango da.
3. Ez da instalazio baimenik eskatu behar kasu hauetan: erabilera publikoa duten espazio pribatuetan, gehienez hiru upel edo hiru mahai garai jartzen direnean, eta bakoitzean gehienez lau taburete, betiere ez denean oinezkoen ohiko ibilbiderik oztopatzen. Salbuespen hau bateragarria eta osagarria da lokalari terraza jartzeko eman ahal izango zaion baimenarekin.
4. Aurreko puntuan zehaztutako egoeran ez bada, ostalaritza lokalek ezingo dute kalea okupatu terraza edo mahaitxoekin eta terraza-gunetik kanpo jarritako upel edo mahai altuekin, une berean.
5. Instalazioak oinezkoentzako gutxieneko bide edo pasabide bat bermatu beharko du Ordenantza honetan adierazitakoaren arabera. Oinezkoentzako nahitaezko bidea edo pasabidea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
6. Terrazak establezimendurako sarreratik 20 metrora baino gertuago jarriko dira, baldin eta segurtasun arrazoiengatik (ibilgailuak ibiltzen diren bide baten beste aldean) horrelakorik egitea komeni ez bada. Horrez gain, terraza ostalaritza lokalaren pare-parean ez badago, eta beste lokal batzuen aurrealdea okupatzen badu, lokal horietako titularrak terraza hor jartzearekin ados daudela ziurtatu beharko da urtero.
7. Ezingo dira terrazen azaleraren zati bat edo azalera osorik altxatzen duten oholtzak, tauladak edo plataformak jarri. Salbuespen dira % 6 baino malda handiagoa izan eta instalazioa mailakatu behar duten espazioak, aparkalekuen gainean dauden baimendutako instalazioak - ordenantza honetan ezarritako baldintzetan-, eta zoladurak altzariak zuzenean jartzea edo espazioa erabiltzea zailtzen duen kasuetan.
8. Debekatutako dago altzariak eta instalazio osagarriak lurzoru publikora jostea, Ordenantzak ezarritako baldintzak betetzen dituzten estalki egonkorren, eguzkitako handien eta alboetako babesen eta perimetralen kasuan izan ezik.
9. Interesatuak terraza berdeguneetan jartzeko edo zabaltzeko baimena eskatu ahalko dute. Kasu horietan, urbanizazio-lanak egin beharko dituzte lurreko zoladura guztia maila berean uzteko (zuhaitzen sustraiei eragin barik egin beharko dira lan horiek). Irizpide teknikoak bete beharko dira, eta zuhaitzentzako euri-uren iragazkortasuna bermatuko da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Behar bezala justifikatuz gero, interes berezirik ez duten zuhaitzak kentzeko baimena lortu ahalko dute. Halakoetan, beste zuhaitz batzuk landatuko dira; kasuan-kasuan erabakiko da zuhaitz mota eta lekua.

Teknikariek beharrezko ikusiz gero, interesatuari exijitu ahalko diote kaltetutako urbanizazio-gunea konpontzeko bermea jartzea.


Horrez gain, interesatuak baimena eskatu dezake alboko urbanizazioaren zati bat moldatzeko eta, horrela, terrazaren instalazioa hobetu ahal izateko. Kostua beregain hartuko du interesatuak. Horretarako, proposamen teknikoak aurkeztu beharko du, xehetasunekin, eta baimena emango zaio baldin eta aldaketak udal urbanizaziorako hobekuntza direla ikusten bada. Baimena lortuz gero, bertan ezarritako baldintza teknikoak bete beharko ditu interesatuak.

Kasu horietan, interesatuek ez dute konponketa lanak egiteko bermea ordaindu beharko, esku-hartzea udal urbanizazioaren parte izango delako, behin betiko.

10. Terrazako altzariek ezingo diete terraza erabiltzen ari ez diren oinezkoen hiriko altzari publikoen erabilera oztopatu. Horregatik, terraza behar bezala instalatzeko ezintasun fisikoagatik adierazitakoa betetzeko hiriko altzarien elementuren bat mugitu behar bada, instalazioaren titularrak egingo du lan hori aurretik udaleko zerbitzu teknikoaren oniritzia lortuta.
11. Ezingo zaie, ondasunei, obrei edo udaleko zerbitzuei eragin. Terraza kentzean zoladurak instalazioarengatik kalteren bat jasan duela ikusiz gero, berehala konpondu beharko da eta hasieran zegoen bezala utzi.
12. Terrazak hartutako bide publikoa eta espaloiak ere garbi izan beharko dira beti eta baimenaren titularrak arduratu beharko du garbiketa-lanez. Instalazioko elementuetan mantentze-lanak egiten ez badira edo garbitasun-baldintza onetan ez badago, baimena kendu egingo da eta, beraz, baita instalazioa ere. Aipatutako baldintzak beti betetzea elementu guztiei dagokie eta elementu horiek guztiek beti egon beharko dute ondo zainduta eta garbi.
13. Udalak altzariek ezaugarri estetiko jakin batzuk eta beste establezimenduekin uniformetasuna izateko ezaugarriak betetzea eskatu ahal izango du hainbat terraza dagoen hiriko eremu homogeneoetan homogeneotasuna bermatzeko.

Kasu horretan, ostalaritzako establezimenduek, bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin, dauden tokiari buruzko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalari eta hark erabakiko du interes orokorrerako egokiena zer den establezimenduekin batera. Akordiorik ezean, Udalak altzariek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta estetikoak erabakitzeko ahalmena izango du.

Establezimenduen arteko ezaugarri estetikoak eta uniformetasunarenak onartu ondoren, lehendik baimendutako altzariak instalatzen jarraitu ahal izango da eta terrazan instalatutako altzari berriak egokitu egin beharko dira establezimendu berean hainbat motatakoak batera egon daitezen, berritzearen arabera.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


14. Terrazen mugak grafikoki ezarriko dira lizentzian bertan. Udalak mugatu ahal izango ditu baimendutako azalera identifikatzeko lurrian markak jarrita. Marka horiek 8 cm-ko zabalerako margotutako marra etenak izango dira.
15. Ezingo da inolaz ere bide publikoa aulkiekin, mahaiekin, eguzkitakoekin edo terrazako beste edozein elementurekin eginiko pilekin hartu, baimendutako azaleratik kanpo.
16. Terrazaren edo mahaitxoaren ordutegitik kanpo altzariak bide publikotik kendu eta horretarako egokitutako espazio pribatuan gorde beharko dira. Hogeita (20) minutuko tarte dago horretarako. Lurrera jositako perimetroko babesa eta estalki egonkorra duten terrazetan, altzariak terrazak osatutako barrutian pilatu ahal izango dira, betiere, ondo lotuta, batetik bestera eraman ezin izateko moduan.
17. Debeakututa dago energia-iturri berriztagarrietatik eskuratzen ez duten berotasuna emateko gailuak erabiltzea. Batez ere, gasa edo erregai fosilak erabiltzen dituztenak.

9. artikulua. Altzarien arauak eta ezaugarriak

1. Eskaera berrietan instalatuko diren altzarien ezaugarriak adierazi beharko dira eta eskaerak Udaleko zerbitzu teknikoaren oniritzia beharko du. Erabili nahi den altzari motaren eta erabili nahi diren beste elementu laguntzaile guztien argazkia ere aurkeztu beharko da.
2. Altzariak diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua izan beharko dute, inguru horretarako egokiak diren koloreekin. Hori guztia dagokion autoritateak ezaugarri estetiko eta uniformetasun-ezaugarri batzuen onarpenari kalterik egin gabe.
3. Instalatu beharreko mahaiekin eta aulkien modeloek duten funtzioa betetzeko egokiak diren ezaugarriak bete beharko dituzte. Denak izango dira pilagarriak, material gogorrekoak, erraz garbitzekoak eta kalitate onekoak.
4. Mahaiekin eta aulkien hanken azpian gomak jarri beharko dira arrastaka eramatean ahalik eta zarata gutxien egiteko.
5. Ordenantza honek terrazaren espaziotik kanpo upelak jartzen uzten duen kasuetan, establezimenduaren fatxadaren parean jarri beharko dira, establezimendua dagoen eraikinaren zatia gainditu gabe.
6. Bide publikoa hartzeagatik dagokion tasa ordaintzeko, Ordenantza honek baimendutako kasuetan terrazatik kanpo dagoen upel bakoitzak metro koadroko bat (1) azalera hartzen duela zenbatuko da.

Mahaitxoaren modulua mahai batek eta aurrez aurre jarritako bi aulki parek osatzen dute. Aldea edo diametroa 0,80 metrotik beherakoa duten mahai karratu edo borobilen kasuan, mahaitxo bakoitzak 1,80 x 1,80 metroko azalera hartzen duela zenbatuko da. Mahaiak 0,80 metrokoa baino handiagoa den aldea edo diametroa badu, azalera hori proportzionalki handituko da.

Erabilgarri dagoen espazioaren neurriagatik lehendik adierazitako mahaitxoak sartzen ez badira, mahai batek eta bi aulkik osatutako mahaitxoak instalatu ahal izango dira eta okupazio teorikoa 0,80 x 1,80 metro koadroko laukizuzen bat izango da.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


Mahaitxo-ilara bat baino gehiago jartzeko baimena ematen denean, gehien komeni den moduan jarri ahal izango dira, betiere, mahai eta aulki guztietara erraz iristeko moduan. Gehienez baimendutako mahai eta aulki kopurua jakiteko, zatitu hartutako azalera ondorengo moduluekin: 2,5 metro koadro mahai bakoitzeko eta 0,8 metro koadro aulki bakoitzeko. Espazioa perimetroa babesteko instalazioarekin duten terrazek ez dute muga hori izango. .

7. Debekatuta dago altzarietan edo instalazioaren parte diren elementu edo instalazio osagarrietan erakusgarriak, publizitatea edo iragarkiak jartzea. Ostalaritzako establezimenduaren izena eta anagrama salbuespenak dira, horiek jarri ahal izango baitira terraza osatzen duten altzarietan edo elementu osagarrietan. Gehienera jota, ondorengo azalera hauek hartuko dituzte:
 - Eguzki-oihaletan eta beste estalki batzuetan, gehienez 60 x 20 cm alderdi edo hegala bakoitzean.
 - Eguzkitakoen hegaletan, aulkietan, mahaletan eta manparetan, gehienez, 20 x 20 cm.
8. Debekatuta dago instalazioa (altuera osoan) erabat ixtea alboetako edozeinetan; salbuespenak dira estalki egonkorak, markesina motakoak, horiek alde bat itxirik izan baitezakete. Itxiturak alboetako eta perimetroko babesak bakarrik izan daitezke eta Ordenantza honetan ezarritakoa betez egingo dira.
9. Erabilitako estalkien hegala eta eusteko oina terrazak hartzen duen azaleraren barruan egongo dira eta inguruan ondo gelditzen diren eta mantentze-lanetarako errazak diren koloretakoak izango dira.
10. Bi metroko distantzia egon behar da eguzkitako eta eguzkitako handien oihalaren eta eraikinen fatxadako lerrokaduraren edo lokaleko toldoaren artean.

10. artikulua. Argiztapeneko instalazioak

Terrazan argia jarri ahal izango da aurretik baimena eskuratuta. Baimena terraza jartzeko eskatzean edo ondoren eska daiteke eta arau hauek bete beharko dira:


1. Baimena eduki ahal izateko, instalazioek indarrean den Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan eta Jarraibide Tekniko Osagarrietan ezarritako puntu guztiak bete beharko dituzte eta baimendutako instalatzaileak dagokion ziurtagiria igorri beharko du.
2. Argiztapen mailak ezingo du kaleko gainerako tokietako maila bikoiztu. Lokalaren terraza edo mahaitxoak bakarrik argiztatu beharko dira, bizilagunei, oinezkoiei edo ibilgailuei traba egitea saihestuz.
3. Argiak establezimenduaren egituretara lotuko dira eta ez zuhaitzetara edo hiriko altzarietara (eserlekuak, kale-argiak, seinaleak, etab.). Egitura horiek segurtasun-elementuak izan beharko dituzte, bai mekanikoak, bai elektrikoak.
4. Eroaleak ezkutuan jarritako kanalizazioetan jarriko dira; lurpean edo eraikinean integratuta.



5. Instalaturako gailuak, jartzeko altuera dela-eta, itxiak izango dira eta UNE 20324 arauaren arabera IP-65 babes maila izan beharko dute. Establezimenduko kutxa elektriko orokorrera konektatuta egongo dira eta zuzeneko eta zeharkako kontaktuen aurka babesteko sistemak ere izan beharko dituzte, pizteko eta itzaltzeko ere balioko dutenak.
6. Terrazako argiak terraza erabiltzeko ezarritako ordutegian bakarrik egon ahal izango dira piztuta.
7. Instalazio elektrikoa urtean behin berrikusi beharko du baimendutako instalatzaile batek eta dagokion adostasun-buletina igorriko du azterketa egin ondoren. Buletin hori udalera igorriko du instalazioaren titularrak.

11. artikulua. Egitura finko bidezko estalkia


1. Estalki finko bat jartzeko asmoa izanez gero, Ordenantza honetako artikuluen arabera mugatutako espazioa erraz ken daitezkeen behin-behineko elementuekin estali ahal izango da. Lurrera josiak egon daitezke eta baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Zutikoak edo gutxi gorabehera lau (4) metro bereizitako euskarriak izango dituzte.
 - b) Estalkiak, gehienez, 3,20 metroko altuera izango du.
 - c) Estalkiaren instalazioan lrteten diren elementuen beheko ertza berrehun eta hogeita (220) zentimetro baino altuagoa izango da.
 - d) Instalazioaren alboetako babesek edo perimetrokoek Ordenantza honen 12. artikuluan ezarritakoa beteko dute.
2. Egitura egonkor bidezko estalkiak zutabeak edo egitura bertikala alboko eraikinaren beheko solairuko fatxadaren lerrotik 4 metro bereizten badira bakarrik jarri ahal izango dira. Estalkia, eraikinaren fatxadaren lerrotik gutxienez 2 metrora egongo da, eraikinaren jabeek gertuago jartzeko baimenik ematen ez badute behintzat.
3. Estalkiek, gainera, diseinu irekia izango dute. Ikusmen-iragazkortasunak lehenetsia izango du eta ez dira hiriaren pertzepziorako eragozpen izango eta ez dute edukiontzi konpaktu gisa funtzionatuko. Egituraren elementuak, ahal dela, altzairuzkoak (herdoilgaitza, burdinurtua...) izango dira eta akaberran pintura izanez gero, pintura oxiron motakoa edo hiriko espazioko altzarietarako esleitutakoa izango da. Horretarako, eskaerarekin batera instalazio-proiektua eta eragina ebaluatzeko behar diren infografiak ere aurkeztu beharko dira.
4. Estalki egonkorak lurrera josi gabe instalatu ahal izango dira egonkorak direla eta ez direla mugitzen bermatzen bada.
5. Eskumena duen udal agintariak atzera botako ditu egitura egonkorreko estalkia jartzeko eskaerak ondorengo kasu hauetan:
 - a) bideko segurtasunari kalte egiten diotenean (ikusgarritasuna murriztea, gidariei arreta galaraztea etab.) edo oinezkoen zirkulazioa zailtzen duenean.



- b) toki batek hainbat erabilera dituenean, urtean zehar toki horretan hainbat ekitaldi eta/edo jarduera egiten direnean eta horiek egiteko lurrera jositako egiturak instalatzea komeni ez denean.
 - c) inguruko eraikinen eta lokalen segurtasuna arriskuan jar dezaketenean (eraikinak husteko, etab.).
 - d) formalki desegokia denean edo inguruarekin bat ez datorrenean edo hiriko pasaia behar bezala irakurtzea zailtzen duenean.
 - e) jabetza pribatuko eta erabilera publikoko espazioetan jarri nahi direnean, eta lurraren jabetza dela medio berariazko baimena edukitzean ez denean. Horixe xedatzen du jabetza horizontalei buruzko legediak baimen mota hauetarako, komunitateko estatutuek lokalaren jabeari esleitzen dizkieten baimenak aparte utzita.
 - f) balio berezia duen gune baten jarri gura direnean.
6. Estalki egonkorra jartzeko proiektuak terraza-eremu baimengarrietan bakarrik baimenduko dira eta ez dituzte luzeran 12 metro eta zabalean 4,80 metro gaindituko.
7. Egin nahi den instalazioak ostalaritzako jarduera egiten duen lokalaren fatxadaren luzera gainditzen duenean eta bide publikotik beste lokal komertzial bat ondo ikustea zail dezakeenean, eragina jasango duten lokal horietako titularren adostasuna lortu dela egiaztatu beharko da.

12. artikulua. Alboetako eta perimetroko babesak

- 1. Terrazaren mugetan alboetako babesak nahitaez instalatu beharko dira instalazioak hartutako eremuak oinezkoentzako bideak hartzen dituenean eta espazio publikoaren erabilieran gatazka sor daitekeela aurrez ikus daitekeenean. Tabureterik gabeko upelak erabiltzeko ez da alboetako babesik behar.
- 2. Terrazaren mugetan perimetroko babesak nahitaez instalatu beharko dira espazioa jositako egitura egonkor bat duen estalki batek hartzen duenean.
- 3. Terrazaren mugetan perimetroko babes josiak nahitaez instalatu beharko dira bide aldera terrazak aparkatzeko lerroa hartzen duenean.
- 4. Terrazak ibilgailuen bidearekin duen muga perimetroko babes josiak nahitaez jarri beharko dira ibilgailuen zirkulaziotik bereizteko aparkatzeko lerro bat ez dagoen kasuetan.
- 5. Terrazak bidegorriarekin duen muga perimetroko babes josiak nahitaez instalatu beharko dira.
- 6. Nahitaezkoa izango da batera etenik gabe elkarren alboan dauden bi terrazaren artean alboetako babesak jartzea. Alboetako babesa bi titularrak ados jarrita ezarriko da. Alboetako babesa nork jarri behar duen adosten ez badute, azken eskatzaileak instalatu beharko du, bere kontura.
- 7. Instalazioa hiriko altzarien elementuen artean badago eta elementu horiek alboetako babesaren funtzioa ondo betetzen badute, alboetako akotazioak ez jartzeko aukera egongo da.




Elementu horiek landareontziak eta abar izan daitezke eta aurreko ataletan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

8. Nolanahi ere, alboko edo perimetroko babesak instalatu ahal izango da, aurretik interesdunak hala eskatzen badu, eta instalazio horrek ez badu espazio publikoa egoki erabiltzea eragozten.
9. Alboko eta perimetroko babesak baldintza hauek bete behar dituzte:
 - a. Babesak mugikorrak eta inguruko baldintzetarako egokiak izan behar dira eta forma hauek izan ditzakete:
 - i. itsuekin, zeharrargiekin eta gardenekin eraikitako manparak, begiratzean terrazak mugatzeko elementu gisa, loreontzi-euskarrietan jarritako landareak. Egonkortasuna bermatzeko oinarri egonkor eta sendoa izan behar dute.
 - ii. elementu hor dagoela identifikatzeko zerrendekin, 1,50 metroko altueran.
 - b. Ezingo dituzte terraza instalatzeko ezarritako mugak gainditu eta altuera ez da izango zero koma laurogei (0,80) metro baino txikiagoa edo metro bat eta berrogeita hamar (1,50) zentimetro baino handiagoa. Alboetan edo terrazak hartutako espazioaren perimetroan jarri ahal izango dira eta, normalean, libre utzi beharko da ostalaritzako jarduera dagoen lokalaren gertueneko terrazaren aldea.
 - c. Alboko eta perimetroko babesetan elementu mugikorrak jarri ahalko dira, espazioa euritik eta haizetik hobeto babesteko. Gunea, hala ere, ezingo da itxita egon. Elementu mugikorrek lurretik, gehienez, 1,90 metroko garaiera izango dute. Gardentasuna bermatzeko eta begi-inpaktua gutxitzeko, beiraz hornitutakoak izango dira.
 - d. Babeserako instalazioaren alde itsua ezingo da zero koma laurogei (0,80) metro baino handiagoa izan eta altueraren gainerako tokian zeharrargitsuak edo gardenak izan beharko dute.
10. Nahitaezko perimetroko babesak josiak izango dira beti.
11. Nahitaezkoak diren alboetako eta perimetroko babesak, lurrera josteko berariazko baimenik ez dutenak, kendu egin beharko dira gainerako altzariekin batera.

13. artikulua. Espazio inklinatuak edo aparkatzeko espazioak hartzeko oholtzak

1. % 6tik gorako malda dagoen espazioetan terrazen azaleraren zati bat edo azalera osorik altxatzen duten oholtzak, taulak edo plataformak jarri ahal izango dira lurra espaloien mailara altxatzeko, instalazioa mailakatu behar duten tokietan, aparkatzeko tokietan terraza jartzea baimendu daitekeenetan, edo lurreko zoladurak altzariak era zuzenean jartzea zailtzen duen guneeetan.
2. Oholta egiteko erabiltzeko materialek instalatuta egongo den aldian behar bezala erabiltzeko bezain sendoak eta ez irristatzeko modukoak izan beharko dute. Diseinu eta tratamendu kromatiko bateratua izan beharko du, inguru horretarako egokia.



DURANGO


Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

3. Oholtza ez bada kanpoko lurraren zoladuraren mailan geratzen, irisgarritasuna bermatzeko lana terrazaren gunean bertan egin beharko da, ahalik eta azalera handiena hartuta egin beharko da.
4. Oholtzak edo plataformak, aparkalekuen gainean terrazak instalatzeko erabiltzen badira, ondorengo ezaugarri hauek izan beharko dituzte:
 - Plataforma luzetara jarriko da espaloia ertza alboan eta bidearen ertza eta alboko plazetara, gutxienez 30 cm-ko distantzia izango du.
 - Oholtza ura husteko sistemarekin egin beharko da eta sistema horrek ez dio trabarik egin beharko urbanizazioan lehendik dagoen bilketa-sistemari.
 - Perimetroko babes josia izango du, hartutako gunea babesteko. Perimetroko babesaren orde z baranda bat jarri ahal izango da.
 - Horretarako egokitutako espazioan altzariak eta eguzkitakoak jarri ahal izango dira.
 - Eguzkitakoek hartzen duten tokiak ezingo du, inolaz ere, bidea hartu, ezta inguruko aparkalekuena ere.
 - Horrelakoetan, egitura egonkorreko estalkiak ezin dira egon ainguratuta okupatutako aparkaleku zatian.

14. artikulua. Ibilgailuen zirkulazioa dagoen kaleetako espaloietan instalazioek hartuko duten tokia

1. Espaloi batek terraza edo mahaitxoak jartzeko izan behar duen gutxieneko zabalera 3,00 metrokoa izango da.
2. Instalazioak oinezkoentzako bide bat bermatu behar du fatxadaren alboan, oztoporik gabe. Oinezkoentzako bide horrek ondorengo ezaugarri hauek bete behar ditu, espaloia izaren zabaleraren arabera:
 - 3,00-4,00 metrokoa. Oinezkoentzako 2,00 metroko bidea utzi beharko da libre eta terrazaren zabalera 60-170 cm-koa izango da.
 - 4,01-5,00 metrokoa. Oinezkoentzako 2,50 metroko bidea utzi beharko da libre eta terrazaren zabalera 120-220 cm-koa izango da.
 - 5,01-6,30 metrokoa. Oinezkoentzako 3,00 metroko bidea utzi beharko da libre eta terrazaren zabalera 170-300 cm-koa izango da.
 - 6,30 m baino handiagoa. Oinezkoentzako 3,50 metroko bidea utzi beharko da libre eta terrazaren zabalera 250-480 cm-koa izango da.
3. Oinezkoentzako bide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
4. Terrazetan elementu osagarri hauek jarri ahal izango dira:



DURANGO


Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Estalkiak, egitura egonkor bidez, modalitate guztietan
 - Eguzkitakoak eta eguzkitako handiak
 - Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.
5. Luzetara jarriko dira espaloiairen ertzean eta espaloitik, gutxienez, hogeita hamar (30) zentimetrora, jendea hor dauden ibilgailuetan sartu eta horietatik ateratzen denean, trabarik ez egiteko. Ibilgailuak baterian aparkatuta daudenean, terrazaren eta espaloiairen ertzaren arteko tarteak, gutxienez, hirurogei (60) zentimetrokoa izango da.
6. Terrazak ibilgailuen bidearekin duen mugan perimetroko babes josiak nahitaez jarri beharko dira ibilgailuen zirkulaziotik bereizteko aparkatzeko lerro bat ez dagoen kasuetan.
7. Oinezkoen pasabideen, etxebizitzaren atarien, autobus eta taxi-geltokien aurrean jarri ahal izango dira, espaloiairen eta terrazaren artean oinezkoentzako oztoporik gabeko lau (4) metroko bide bat gelditzen den kasuetan bakarrik.
8. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoerengatik terraza edo mahaitxoak establezimenduaren fatxadaren alboan jartzea komeni bada, horretarako baimena eman ahal izango da Bulego Teknikoak proposatutako diseinua eta baldintzak aintzat hartuta.
9. Eskatutako gutxieneko zabalerarik ez badago eta izanda ere terraza ohiko tokietan jarri ezin izateko beste egoera batzuk badaude edo terraza gehienez baimendutako 4,80 metroraino zabaldu nahi bada, terrazak aparkatzeko marraren gainean oholatza edo plataforma gainean jarrita instalatzeko aukera izango da, aurretik mugikortasunaren arduradun den pertsonak zirkulazioari eta ibilgailuak aparkatzeari sortuko liokeen eragina aintzat hartuta aldeko txostena egiten badu. Baimena denboraldi-artera murrizteko aukera dago, interesdunak hori eskatu ez arren.
- Horrelakoetan, ezingo dira ilaran aparkatzeko bi toki baino gehiago hartu, ezta baterian aparkatzeko lau toki baino gehiago ere. Ezingo da desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku kopurua murriztu, beraz, behar izanez gero, horiei dagokien seinale bertikalak zein horizontalak baldintza berdineko inguruko beste aparkaleku batera eramango dira, aurretik mugikortasun arloko arduradunak horri buruzko txostena egin ondoren. Terrazaren kokalekuko baldintzengatik zabalaziteko gunea mugitzea komeni bada, interesatuak baimena lortu beharko du zabalaziteko lotutako seinaleztapen bertikal eta horizontalak mugitzeko.
10. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da.

15. artikulua. Instalazioen okupazioa oinezkoentzako kaleetan


1. Ostalaritzako terrazak eta mahaitxoak, mota guztietako altzariekin, gutxienez sei (6) metroko zabalerara duten oinezkoen kaleetan eta oinezkoentzako bide bat libre uzteko moduan onartuko dira eta babes zibileko ibilgailuei, anbulantziei, garbiketarako ibilgailuei eta abarri ere bidea libre uzteko moduan jarriko dira. Gutxienez, hiru koma berrogeita hamar (3,50) metro utziko dira horretarako.



2. Oinezkoentzako bide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
3. Terrazetan elementu osagarri hauek jarri ahal izango dira:
 - Estalkiak, egitura egonkor bidez, ate gisako modalitatean.
 - Eguzkitakoak eta eguzkitako handiak.
 - Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.
4. Oinezkoentzako kalean behar adinako zabalerarik ez badago, establezimenduaren aurrean upelak jarri ahal izango dira eta ezingo da beste altzaririk jarri horiekin batera. Hala ere, upelak jarri ahalko dira interesatuak hala eskatzen badu eta ez badu talkarik egiten terraza eta mahaitxoentzako beste baimen batekin.
5. Kasu horretan, upelek metro bateko (1) pasabidea utziko dute oinezkoentzako establezimenduaren aurrean eta oztoporik gabeko oinezkoentzako bide bat ibilgailuak ere igarotzeko. Gutxieneko zabalera hiru koma berrogeita hamar (3,50) metrokoa izango da.
6. Bata bestearen parean dauden ostalaritzako bi establezimenduk terraza edo mahaitxoak jartzeko lizentzia eskatzen badute, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egoera aztertu eta erabakiko dute espazioa nola banatu ezarritako neurriak aintzat hartuta.
7. Ostalaritzako terrazaren edo mahaitxoaren kokapena kale eta kalearen zati bakoitzaren ezaugarrietara egokituko da.
8. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da.

16. artikulua. Instalazioen okupazioa oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleetan

1. Ostalaritzako terrazak eta mahaitxoak, mota guztietako altzariekin, gutxienez zortzi (8) metroko zabalera duten oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleetan onartuko dira eta oinezkoentzako bide bat libre uzteko moduan eta babes zibileko ibilgailuei, anbulantziei, garbiketarako ibilgailuei eta abarri ere bidea libre uzteko moduan jarriko dira. Gutxienez, hiru koma berrogeita hamar (3,50) metro utziko dira horretarako. Zabalerak horrek 4,50ekoa izan beharko du ibilgailuei bira emateko tokia utzi behar zaien lekuetan.
2. Oinezkoentzako bide librea zabaldu egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
3. Terrazetan ondorengo instalazio osagarriak jarri ahal izango dira:
 - Eguzkitakoak eta eguzkitako handiak
 - Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.
4. Oinezkoentzako kalean behar adinako zabalerarik ez badago, establezimenduaren aurrean upelak jarri ahal izango dira eta ezingo da beste altzaririk jarri horiekin batera. Hala ere, upelak



jarri ahalko dira interesatuak hala eskatzen badu eta ez badu talkarik egiten terraza eta mahaitxoentzako beste baimen batekin.

5. Kasu horretan, upelek metro bateko (1) pasabidea utziko dute oinezkoentzako establezimenduaren aurrean eta oztoporik gabeko oinezkoentzako bide bat ibilgailuak ere igarotzeko. Tartearen gutxieneko zabalera hiru koma berrogeita hamar (3,50) metrokoa izango da, eraikinean 3,60 metro baino baxuagoa den edozein elementutatik.
6. Bata bestearen parean dauden ostalaritzako bi establezimenduk terraza edo mahaitxoak jartzeko lizentzia eskatzen badute, Udaleko Zerbitzu Teknikoek egoera aztertu eta erabakiko dute espazioa nola banatu ezarritako neurriak aintzat hartuta.
7. Ostalaritzako terrazaren edo mahaitxoaren kokapena kale eta kalearen zati bakoitzaren ezaugarrietara egokituko da.
8. Terraza jartzean, fatxadaren alboan oinezkoentzako bide bat dagoela ziurtatu beharko da, baldin eta salbuespen gisa, Udaleko Zerbitzu Teknikoek aurretik txostena egin eta Udaleko agintariak, erabakia arrazoituta, terraza jartzean irisgarritasun-arauak hobeto bermatuko dituen beste aukera baten aldeko txostena egiten ez badu behintzat.
9. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da.

17. artikulua. Instalazioen okupazioa espazio libreetan eta plazetan


1. Fatxadaren lerro bakoitzean, oztoporik gabeko oinezkoentzako bide iraunkor bat egotea bermatuko da. Gehienez lau (4) metroko zabalera eta gutxienez biko (2) izatea gomendatzen da eta bat etorri beharko du bertan dauden hiriko altzarien baldintzekin.
2. Oinezkoentzako bide librea zabaltzeko egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
3. Terrazetan ondorengo instalazio osagarriak jarri ahal izango dira:
 - Estalkiak, egitura egonkor bidez, modalitate guztietan
 - Eguzkitakoak eta eguzkitako handiak
 - Eguzki-oihalak, oinezkoentzako fatxadaren albotik igarotzeko bide bat utzi ezin den salbuespenezko kasuetan bakarrik eta hirigintzako araudiak baimentzen badu.

4. Okupatua izan daitekeen espazioaren banaketa espazio libreen azaleraren eta ezaugarrien arabera egingo da eta xede duten erabilera bermatuko zaie eta okupazio-eskaera egin dezaketen establezimendu kopurua ere aintzat hartuko da.

5. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da alboetatik.

18. artikulua. Instalazioen okupazioa balio berezia duten espazioetan

1. Ordenantza honetan jasotako muga orokorreki kalterik egin gabe, banan-banan aztertuko dira berezitat hartuko tokietan terrazak jartzeko egiten diren proposamenak.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


2. Oztoporik gabeko oinezkoentzako bide iraunkor bat egotea bermatuko da. Gehienez lau (4) metroko zabalera eta gutxienez biko (2) izatea gomendatzen da eta bat etorri beharko du bertan dauden hiriko altzarien baldintzekin.
3. Oinezkoentzako bide librea zabalduta egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
4. Terrazetan ondorengo elementu osagarriak jarri ahal izango dira:
 - Eguzkitakoak eta eguzkitako handiak
5. Okupatua izan daitekeen espazioaren banaketa espazio libreen azaleraren eta ezaugarrien arabera egingo da eta xede duten erabilera bermatuko zaie eta okupazio-eskaera egin dezaketenean establezimendu kopurua ere aintzat hartuko da.
6. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da alboetatik.

19. artikulua. Instalazioen okupazioa arkupeetan

1. Arkupeetan terrazak jartzeko aukera emango da arkupeek gutxienez hiru koma berrogeita hamar (3,50) metroko zabalera librea dutenean. Terraza arkupean jartzeko baimena ematen bada, ez da aplikatuko 8.3.artikuluan erabilera publikodun lurzoru pribatuei buruz ezarritakoa.
2. Fatxadaren lerro bakoitzean, oztoporik gabeko oinezkoentzako bide iraunkor bat egotea bermatuko da. Gutxienez lau (4) metroko zabalera izango du eta bat etorri beharko du bertan dauden hiriko altzarien baldintzekin.
3. Oinezkoentzako bide librea zabalduta egin daiteke oinezkoen atzera-aurrera handiak hala eskatzen duelako, Udal teknikariak hala irizten badio.
4. Terrazetan ezingo da elementu osagarriak ipini.
5. Hala behar izanez gero, instalazioa 12. artikuluan ezarritako moduan babestu eta zedarrituko da alboetatik.
6. Arkupeen aurrean 3,50 metro baino zabalagoa den plaza bat, oinezkoentzako kale bat edo espaloi bat dagoenean, mahaiak aldameneko bi espazioetan jartzeko baimena eman ahal izango da, bakoitzerako ezarritako okupazio-mugak errespetatuz, eta ezingo da 7.8 artikuluan ezarritako muga orokorra gainditu.

III. KAPITULUA: ARAUBIDE JURIDIKOA

20. artikulua. Udal-lizentzia




1. Terrazak eta horien elementu osagarriak instalatzeko, aurretik Udalaren baimena behar da.
2. Lizentzia izapidetzeko ondorengo atal hauetan ezarritakoa beteko da.

21. artikulua. Eskaera

Terrazak eta mahaitxoak jartzeko lizentzia berrien eskaerak urteko edozein garaitan aurkeztu ahal izango dira.

Lizentzia berria eskuratzeko eskaerarekin batera, interesdunak Udalean ondorengo informazio eta agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- a) Interesdunaren identifikazioa.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, ordezkariaren akreditazioa.
- c) Jardueraren izena eta kokapena.
- d) Jarduerari buruzko datuak eta identifikazio fiskala.
- e) Eskatzailearen izenean jarduera gauzatzeko Udalak emandako baimenari erreferentzia.
- f) 7.9 artikuluan aurrez ikusitako kasuan, aldameneko lokalen baimena duela erakusten duen egiaztagiria.
- g) Erabilera publikoko eta jabetza pribatuko lurreen jarritako instalazioen kasuan, lurren titularren baimena. Baimen horretan zehaztu beharko da baimenak zer urte(e)tarako balio duen.
- h) Lizentziaren eskatzaileak bide publikoa okupatzeko ordutegitik kanpo terrazarako aurreikusitako altzari guztiak gordetzeko gutxienez 4 m²-ko azalera duela egiaztatzeagiria. Helbidea eta eskala egokia duen plano bat ere aurkeztu beharko dira. Toki horrek ez du itxia izan beharrik eta ostalaritzako lokaleko gunek bat izan daiteke, ostalaritzako jarduerarako beharrezkoa ez dena eta pasabideak eta husteko irteerak oztopatzen ez dituenak. Jositako perimetroko babesa duten terrazetan, altzariak aipatutako toki horretan pilatu ahal izango dira terrazako ordutegitik kanpo, betiere, pilatutako altzariak batetik bestera ez eramateko moduan daudela bermatuta.
- i) 29. artikuluan adierazitako erantzukizun zibileko aseguru-primaren kopia.
- j) Berotasuna emateko gailuak instalatu nahi izanez gero: Berokuntza-sistemaren energia berriztagarria dela dioen ziurtagiria. Ziurtatze hori egiteko instalazioaren fitxa teknikoa eta enpresa hornitzailearekin sinatutako energia garbien kontratua aurkeztu behar dira, baita kontratu horretako ordainketak egunean daudela adierazten duen agiria ere.
- k) Erradazio-gailuak jarri gura badira, gailu horien egoera egiaztatzen duen dokumentazio teknikoa.
- l) Fidantza ordaintzea 35. artikuluan ezarritako zenbatekoarekin.




DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

m) Instalazio-proposamena. Ondorengo agiri hauek izango ditu gutxienez:

- 1:100 eskalan eginiko planoak. Planoan azalduko dira instalazioaren eraginpeko bide publikoaren zatia, mahaia eta aulkiak, alboetako babesak, egitura egonkor bidezko estalkiak, landareontziak, eguzkitakoak (horizontalean hartzen duten tokia adieraziz) nola jarrita dauden azalduta eta fatxadaren luzera eta pasabide libreen zabalera adieraziz. Gainera, jakinarazi egin beharko da oztopo finkorik balego (zirkulazio-seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, hiriko altzariak etab.) eta udal-zerbitzuei (ura, saneamendua, gasa...) edo ondoko lokalei eraginen bat sortzen bazaie.
- Zer altzari instalatu behar diren azalduko da eta Udaleko zerbitzu teknikoaren oniritzia izan beharko du.
- Alboko edo perimetroko babesaren xehetasun grafikoa, horrelakorik balego. Neurriak ere adieraziko dira.
- Eskaeran aparkalekuak hartzeko baimena eskatzen bada, terraza espaloien mailan jarriko dela eta ibilgailuetatik babesteko elementuak izango dituela egiaztatzeko agiri grafikoak eta teknikoak aurkeztu beharko dira. Proposamenaren fotomuntaketa edo hiru dimentsioko muntaketa bat ere sartu beharko da. Amaierako emaitza ikusiko da muntaketa horretan hainbat ikuspegitatik eta plano xehatuak ere izango ditu, ahal dela 1:25 eskalan, planta eta altxaera zehaztuta. Eraikuntzako soluziobideak ondo uztartu behar du inguruko espazioen eta eraikuntzen ezaugarriekin.
- Eskaeran egitura egonkor bidezko estalki bat ere sartzen bada, eskumena duen teknikariak idatzitako proiektua aurkeztuko da, instalazioko materialen diseinua, kalitatea, ezaugarriak eta estetika aztertzeko agiri grafiko eta tekniko guztiekin. Proiektuaren ordezkariaren homologazio-zurtagiri bat ere aurkez daiteke. Egitura egonkorra duen estalkiaren proposamenetan amaierako emaitza ikusteko agiri grafikoak aurkeztu beharko dira, plano xehatuak ere izango ditu, ahal dela 1:25 eskalan, planta eta altxaera zehaztuta. Eraikuntzako soluziobideak ondo uztartu behar du inguruko espazioen eta eraikuntzen ezaugarriekin.
- Proiektu horretan edo homologazio-zurtagiriaren dokumentazio teknikoan terrazaren forma eta neurriak, osatzen duten materialak, atalak, finkatzeak, haizearekiko erresistentzia, eraikuntzako, apaintzeko eta altzarien elementuen suarekiko duten erreakzio maila eta abar ere adieraziko dira.
- Estalki egonkor bat jartzeko interesa duten ostalaritzako establezimenduek terrazarako estalkiaren proiektuari buruzko aurretiazko txostena eskatu ahal izango dute eta, horretarako, instalazioaren deskribapen-krokisa aurkeztu beharko dute, okupazioaren, plantaren eta altxaeraren neurriak eta terrazaren eraginpeko espazio publikoarekin duen harremana adieraziz. Jarri nahi den instalazioaren zerbitzuak, inguruabarrak eta infografia eta argazki-muntaketa ere aurkeztu beharko dira. Udalaren iritzia pertsonalki jakinaraziko zaio titular bakoitzari, behin betiko proiektua Udalaren jarraibideak aintzat hartuta egin dadin eta, horrela, beharrezkoak ez diren lan eta gastuak saihestuz.




- Terrazan berotasuna emateko gailuak, erradiazio-gailuak eta/edo argiak instalatuz gero, dagokion instalazio elektrikoa egiteko aurrez ikusitako obren aurrekontua ere aurkeztu beharko da. Argiak instalatu ondoren, espedientean instalatzaile akreditatuaren buletina sartu beharko da.
- Udal-urbanizazioan obrak egin behar diren kasuetan, deskripzio grafikoa aurkeztu beharko da -hala behar izanez gero-, eta diru-ataletan xehatutako aurrekontu bat aurkeztu beharko da unitateko prezioak ere adierazita.

22. artikulua. Ebazpena

1. Eskaera Ordenantza honetan eskatutako baldintzetan egin ondoren, txosten teknikoa eta juridikoa igorriko da hala dagokionean. Txosten teknikoa baimena eskuratu behar duten okupazioaren eta instalazioaren baimena eta baldintza espezifikoak proposatuko dira, ahal dela eskatzailearen proposamenera doitzuz.
2. Proposamenean aparkalekuak ere hartzea sartzen bada, ibilgailuen zirkulazioari eta aparkatzeari sortutako eraginei buruz Udaleko mugikortasun sailak txostena igorriko du eta baimena emateko, terrazak ez dituela gune horretako arazoak areagotzen ondorioztatu beharko du txostenak.
3. Eskumena duen udaleko agintariak bi hilebeteren (2) buruan ebatziko du eskaera. Instalazioaren ezaugarri fisikoez gain (okupazioaren azalera, mahai eta aulki kopurua ere adieraziz) instalazioagatik sortutako udal-eskubideak ere izango ditu ebazpenak; baita baimendutako ezarpenaren plano bat eta Ordenantza honi jarraiki bete beharrekoak diren baimenak ere.
4. Hilabeteko (1) epean ebazpenik igortzen ez bada, eskaera ez da onartua izango. Salbuespen izango dira okupazio-eskaerak titular pribatuko lurzoruari bakarrik eragin eta Ordenantza honetako baldintzetan arau-haustekak egiten ez dituzten kasuak.

23. artikulua. Lizenziaren baldintzak

1. Lizenziak beti jabetza eskubideari kalterik egin gabe eta hirugarrenei eragozpenik sorrarazi gabe emandakotzat joko dira. Hori ezingo da erabili onuradunak bere jarduerak betetzerakoan eragin lezakeen erantzukizun zibil edo zigor-erantzukizuna kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, ez dute titularra beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik salbuesten
2. Lizenziaren dokumentuan hainbat alderdiri buruzko baldintzak ezarriko dira: instalazioak eta elementu osagarriak, hartu beharreko azalera eta kokapena, baimendutako mahai eta aulki kopurua, ordutegia, indarraldia eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko berezitasunak.
3. Lizenziaren titularrak establezimenduaren serreran ikusgai izan behar du lizentzia-agiria edo horren kopia, baita lizenziarekin batera igorritako planoak ere, lizentzia emateko erabilitakoa eta instalazioak hartuko duen eremua zehazten duena, azalera mugatuz eta baimendutako mahai eta aulki kopurua adieraziz.
4. Lizenziak prekario izaera izango du beti eta zirkulazio eta urbanizazio gorabeherak edo interes orokorreko edo udalaren intereseko beste edozein inguruabarrek hala eskatzen duenean, baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango du udal agintariak



modu arrazoituan. Aldi baterako etenaldiak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea emango du espazio publikoa erabili ezin den aldia (2) aste baino luzeagoa bada. Kalte-ordain gisa, dagokion tasaren zati proportzionala itzuliko da.

5. Terrazaren erabilera dela-eta inguru horretako kalitate akustikoaren muga gainditzen bada, lizentzia baliogabetu egingo da eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
6. Lizentziaren titularra okupatutako eremuan instalazioaren ondorioz gertatutako kalteak konpontzera behartuta dago.
7. Lizentzia emateak eta dagokion tasa ordaintzeak lizentzian zehaztutako espazio publikoaren zatia erabiltzeko ahalmena ematen dio titularrari. Azalera, mahai kopurua edo baimendutako aldia erabat edo partzialki ez erabiltzeak ez du inola ere dagokion likidazioen harira ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskubidea izatea ekarriko.

24. artikulua. Indarraldia

1. Lizentziek interesdunak eskatutakoaren arabera indarraldia izango dute eta bi aukera hauetako baterako izan daitezke:


Urteko denboraldia.....urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Denboraldi erdiamaiatzaren 1etik urriaren 31ra edo azaroaren 1etik apirilaren 30era.

2. Indarraldi hori, betiere, etenik gabea izango da.
3. Udalak oinezko gune edo gune partekatu izendatutako lekuetan (adibidez, Zumalakarregi etorbidean), egun eta ordutegi gutxiagorako baimenak lortu ahalko dira, data eta ordutegi mugatuetan. Horrelakoetan, okupazioko egun horiei dagokien udal tasa ordaindu beharko da.

25. artikulua. Lizentzia urtero berritzea

1. Lizentzia lortu eta gero, emandako baimenak urtero berriztuko dira modu automatikoan, ez badira baimena emateko lokalari jarri zitzaizkion baldintzak aldatzen.
2. Baimenen titularrek urtero dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte: erantzunkizun zibileko poliza egunean dagoela ziurtatzeko egiaztagiria; terrazak lurzoru pribatuan egonez gero, lurren jabeek emandako baimena; terraza parean beste lokal bat egonez gero, bertako titularraren adostasuna egiaztatzeak agiria, 7.9 eta 7.10. artikuluei jarraiki; berotze-gailuak izanez gero, indarrean dagoen energia-iturri berriztagarrien kontratua -21.j) atalean adierazitakoa-; eta terrazan instalazio elektikoren bat badago, haren urteroko ikuskapena egin izanaren dokumentua. Agiri horiek ez badira aurkeztzen, udalak lizentzia kendu diezaioke titularrari.
3. Baimendun titularrek edozein unetan egin ahal diete uko baimen horiei, administrazio prozedura erkidearen arauetan xedatutakoari jarraiki. Ezeztapena urtarrilaren 31 baino lehen eginez gero, ez da tasarik kobratuko.
4. Baimenari uko egin aurretik, titularrek terrazak kendu beharko dituzte, eta, beharrezkoa denean, espazio publikoa lehengo eran utzi.



26. artikulua.- Ordutegia

1. Terrazaren funtzionamendu-ordutegia ostalaritza jardueren baldintzapean dago. Gainera, jarduera nagusiak baimenduta duen ordutegia gorabehera, ordutegi hau ezartzen da urte osorako:

Igandetik asteazkenera: 08:30etik 23:00etara.

Ostegunetan: 08:30etik 24:00etara.

Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan: 08:30etik goizaldeko ordu batera arte.

Oinezkoentzako kaleetan eta oinezkoek eta ibilgailuek partekatutako kaleetan, terrazak jartzeko ordutegia ez da hasiko hornitzaileak sartzeko ordutegia amaitu arte (oinezkoen gunean 06:00etatik 12:00etara edo ordenantzan zehaztutako ordutegian).


2. Era berean, herriko jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera, inauterietan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra eta azokak (liburu-azoka), erakusketak edo Udalak interes turistikotzat jotzen dituen beste ekitaldi batzuk daudenean, terrazetarako ordutegia uda-garaikoa izango da.
3. Terrazaren edo mahaitxoaren ordutegitik kanpo altzariak bide publikotik kendu eta horretarako egokitutako espazio pribatuan gorde beharko dira. Hogei (20) minutuko tartea dago horretarako.
4. Terraza gisa definitutako eremutik kanpo baimendutako upelak terrazak batzeko ordu berean batu beharko dira.

27. artikulua. Azalera okupagarria mugatzea

1. Terrazaren mugak grafikoki ezarriko dira lizentzian bertan. Udalak mugatu ahal izango ditu baimendutako azalera identifikatzeko lurrean markak jarrita. Marka horiek 8 cm-ko zabalerako margotutako marra etenak izango dira.
2. Terraza perimetroko babes josia duen barruti baten barruan badago, mugak barruti horren itxiturekin bat etorriko dira. Babes hori jarri aurretik Udaleko teknikariek zuinketa egiaztatu beharko dute.
3. Muga ezingo da gainditu altzariekin pasabidea hartuz eta establezimenduko titularra izango da arau hori betetzearen arduraduna.
4. Alboetako eta perimetroko babesen sistemak ezingo die oinezkoek arriskurik sortu, ezta kalterik edo aldaketarik ere bide publiko edo pribatuetan.

28. artikulua. Instalazioaren titularren betebeharrak

1. Betebehar orokorreki eta Ordenantza hau aplikatuzetik datozen betebeharreki kalterik egin gabe, instalazioaren titularrak instalazioa lizentziaren baldintzak betez jartzeko betebeharra du.



Udaleko teknikariei lizentziaren baldintzak eta lizentziari atxikitako planoa interpretatzeko eskatu ahal izango zaie.

2. Betebehar orokorreari eta Ordenantza hau aplikatzetik datozen betebeharreari kalterik egin gabe, instalazioaren titularrak baimendutako okupazioak hartzen duen lurra, instalazioa eta haren elementu osagarriak baldintza onetan izateko betebeharra du, garbitasunari, segurtasunari eta apaingarriari dagokienez baita horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak (zaborrontziak, hautsontziak, etab.) izateko betebeharra ere.
3. Terrazen eta mahaitxoaren garbiketa orokorra establezimendua itxi eta handik ordubeteko epean egingo da. Hala ere, uneoro izan behar da garbi ingurua.
4. Titulartasun publikoa duen espazioan baimendutako instalazioaren titularrak Udalari dagozkion tasak ordainduko dizkio Udal Jabari Publikoa Okupatzeagatiko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalean ezarritako zenbatekoan eta forman. Titulartasun pribatua duen espazioan baimendutako instalazioen titularrak Udalari dagozkion tasak ordainduko dizkio Agiri Administratiboa Emateagatiko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalean ezarritakoaren arabera. Tasa horiek ez ordaintzeak horiek ordaindu direla egiaztatu arte etorkizunean lizentziarik ez eskuratzea ekarriko du.
5. Titularrak bere kontura finantzatu beharko du erabilera publikoko espazio okupatuan kaltetzen diren elementuen konponketa edo bere jarduerak sortutako beste edozein kalte.
6. Titularra izango da instalazioen erabilera normaletik edo anormaletik, istripuetatik, ezbeharretatik eta abarretik sortutako kalte-galeren arduraduna eta berak hartuko du bere gain dagokion erantzukizun zibila. Horretarako, instalazioaren titularrak indarrean izan behar du 29. artikuluan aipatutako aseguruia.

29. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguruia


Establezimenduaren titularrak izan behar duen erantzukizun zibileko eta suteetarako aseguru-polizari, Ikuskizun publikoei eta aisialdirako jarduerari buruzko Legearen arabera, estaldura hedatu behar zaio terrazaren funtzionamendutik sor daitezkeen horrelako arriskuak ere barne hartzeko.

IV. KAPITULUA: DIZIPLINAZKO ARAUBIDEA

30. artikulua. Udal-lizentziarik gabeko instalazioak

1. Udaleko agintariak badaezpada eta berehala, aurretik jakinarazi gabe kendu ahal izango ditu bide publikoan lizentziarik gabe jarritako mahaitxoak eta terrazak eta udalaren biltegietara eraman ahal izango ditu pertsona arduradunaren kargura, legezko zigorrak ezartzeari kalterik egin gabe.
2. Artikulu honetan ezarritakoa betez kendutako elementuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegian eduki eta epe hori igarotakoan interesdunak oraindik eraman ez baditu, Udalak suntsitu edo laga egingo ditu.
3. Lizentzia-aldia amaitu ondoren ere terrazak eta mahaitxoak jarrita gelditzen badira, egoera hori udalaren baimena ez izatearen parekotasun hartuko da diziiplina-ondorioetarako.

31. artikulua. Lizentziaren baldintzak ez betetzea



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

1. Terrazak lizentzian ezarritako baimenak bete gabe jarrita daudenean, Udal-agintariak baldintzak betetzen ez dituzten elementuak berehala kentzeko aginduko du. Agindu hori emango du dagozkion zigorrorei kalterik egin gabe.
2. Emandako baimenaren baldintzak edo Ordenantza honetako aginduak betetzen ez badira, zigor ekonomikoa jarriko da indarrean den legeak ezarritako moduan eta Ordenantza honetan aipatutako zigorren arabera.
3. Dagokion zigor-espedientea izapidetu aurretik, instalazio osoa desmuntatu eta kentzeaz gain, ondorengo zigor hauek ezarri ahal izango dira:
 - Hirigintzako Diziplina Erregelamenduan eta Ordenantza honetan aurreikusitako zenbatekoko isuna.
 - Etorkizunean Ordenantza honek araututako baimenak lortzeko gaitasungabetzea, gehienez bi (2) urtez.
4. Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzearen erantzule lizentziaren titularra edo, hala dagokionean, dagokion establezimenduaren titularra izango da.

32. artikulua. Betearazte subsidiarioa


Instalazioaren arduradunak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko Udalak emandako aginduari jaramonik egiten ez dionean, Ordenantza honetan adierazitako kasuetan, Administrazioak elementu horiek kendu eta Udalaren biltegietan gordeko ditu eta handik jaso ahal izango ditu jabeak dagozkion tasak eta gastuak ordaindu ondoren.

Artikulu honetan ezarritakoa betetz kendutako elementuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegian eduki eta epe hori igarotakoan interesdunak oraindik eraman ez baditu, Udalak suntsitu, saldu edo laga egingo ditu.

33. artikulua. Arau-haustek

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen XI. Tituluan ezarritakoa betetz, arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izango dira Ordenantza honen ondorioetarako.

1. Ondorengo hauek izango dira arau-hauste arinak:
 - a) Ordenantza honek arautzen dituen terrazak eta beste elementu batzuk jartzea ordenantzaren ezarritako baldintza teknikoak eta estetikoak bete gabe.
 - b) Baimendutakoak baino elementu gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak eta beste elementu osagarri batzuk).
 - c) Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako tokitik kanpo jartzea.
 - d) Hartutako tokia behar bezalako egoera ez izatea, apaingarriei, segurtasunari eta garbitasunari dagokionez.



- e) Hartutako eremua ez garbitzea egunero instalazioa kentzean.
- f) Mahaiak, aulkiak eta beste elementu tolestu, pilatu eta biltegitatu batzuk establezimendutik kanpo izatea funtzionamendurako baimendutako ordutegitik kanpo.
- g) Terrazetan musika-gailuak edo bozgorailuak jartzea.
- h) Berotasuna emateko gailuak edo argiak horretarako baimenik gabe instalatzea.
- i) Lizentzian edo Ordenantza honetako araudian ezarritako arauak ez betetzea; larri eta oso larri gisa sailkatuak ez direnak.

2. Ondorengo hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a) Terrazak eta mahaitxoak ezarritako ordutegitik kanpo edo Udalaren baimenik gabe jarrita egotea.
- b) Irisgarritasunari buruzko araudia betez espazio eta pasabide libreei buruzko neurrietan jarritako ez betetzea.
- c) Udalaren lizentzia ez izateagatik edo lizentzian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik instalazioa kentzeko Udalak emandako agindua ez betetzea.
- d) Zehapen-espedientea abiarazi aurreko hamabi hilabeteetan bi arau-hauste arin egitea, eta arau-hauste horiek ebazpen irmo bidez zigortuak izatea.


3. Ondorengo hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a) Espazio publikoetan edo horietako instalazioetan eta elementuetan, izan higigarriak edo higiezinak, hondatze larriak sorraraztea terrazak eta mahaitxoak jartzeagatik.
- b) Espazio publiko bat erabiltzeko eskubidea dutenei erabilera hori eragozteko terrazak eta mahaitxoak jartzeagatik.
- c) Espazio publikoa erabiltzeko eskubidea dutenei erabilera hori eragozten dielako, Udal-agintariak zirkulazio, hirigintza, interes orokor edo udal-interesengatik terrazak eta elementu osagarriak, batzuk edo denak, kentzeko agindua eman eta agindu hori ez betetzea.
- d) Zehapen-espedientea abiarazi aurreko hamabi hilabeteetan bi arau-hauste larri egitea, eta arau-hauste horiek ebazpen irmo bidez zigortuak izatea.

34. artikulua. Zigorrak

1. Ordenantza honetan ezarritako arauak ez betetzeak isun-zigorak ekarriko ditu, ondoren adierazitako moduan:

- 1.1. Arau-hauste arinengatik 200-750 euroko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta, beraz, instalazioa berehala kentzea Udalak eskatutakoa betetzen ez den kasuetan.



- 1.2. Arau-hauste larriengatik 751-1.500 euroko isuna eta/edo establezimendua etorkizunean Ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko urtebeterako gaitasungabetzea, gertatutakoaren larritasunaren arabera.
- 1.3. Arau-hauste oso larriengatik 1.501-3.000 euroko isuna eta/edo establezimendua etorkizunean Ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko bi urterako gaitasungabetzea, gertatutakoaren larritasunaren arabera.
2. Instalazioa ondoren legeztatzen bada eta arau-hausteak berriro gertatu ez badira edo Udalak eginiko eskakizunei ezezkorik eman ez bazaie, zigorra zigor ekonomikora mugatu ahal izango da.

35. artikulua. Finantzak

1. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzeko berme gisa, egitura egonkor edo perimetroko babes josien bidez estalkia jarrita duten eta plataforma bidez aparkalekuak hartzen dituzten instalazioetako titularrek lizentziaren tasarekin batera, 300 euroko fidantza ordaindu beharko dute, eskudirutan.
2. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzeko berme gisa, urbanizazioan obrak egin behar dituzten instalazioen titularrek lizentziaren tasarekin batera, Udaleko teknikariek kalkulaturako berriztapen-zenbatekoari dagokion fidantza jarri beharko dute, eskudirutan.
3. Borondatez ordaintzeko epea amaitu eta oraindik fidantza jarri gabe badago, baimena iraungi egingo da eta, beraz, interesdunak beste lizentzia bat eskatu beharko du instalazioa jartzeko.
4. Interesdunak fidantza itzultzeko eskatu eta instalazio finkoko elementua kendu dela eta espazio publikoa lehen zegoen bezala gelditu dela egiaztatu ondoren itzuli egingo dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetu egingo da 2005eko otsailaren 24an osoko akordioaren bidez onartutakoa.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Ordenantzaren moldaketa hau indarrean jarri aurretik ostalaritzako terrazak edo mahaitxoak jartzeko emandako baimenak Ordenantza honetan lizentzia berritzeko ezarritako araubideari lotuak egongo dira, betiere, baimenaren baldintzak aldatu ez badira.

BIGARRENA.- Ordenantzaren moldaketa hau testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzean jarriko da indarrean, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igarotzean.